

# ABE

## Amara Berriko Egunkaria

n<sup>o</sup> 55

2011ko apirilaren 5a



egileak:  
Aitor, Nora, Josu eta Tania

a g u r r a

Kaixo, gu Nora, Aitor, Josu eta Tania gara eta gure ABEa gustatzea espero dugu. Hemen gauza asko aurkituko dituzue, ez galdu denbora eta...

HASI IRA-  
KURTZEN!



## TXAKURRAREN ADN<sub>a</sub>.

Hernanin txakurraren ADN<sub>a</sub> eskatuko da, kaleetan kaka nork uzten duen jakiteko. Kalean aurkitutako kaka ikertuko dute eta jakingo dute norena den eta gero izuna jarriko diote jabeari.



## 2. Batzelonako zoologikoa

Itxi zuten Bartzelonako zoologikoa zeren bi otsok ihes egin zuten. Azkenean hartu zituzten baina izugarrizko sustoa jaso zuten. Eskolako 17 talde zeuden momentu hortan baina esan zuen nagusiak ez zegoela arriskurik.



a u r k i b i d e a

- 1.- portada: Txakurraren ADN<sub>a</sub>, Bartzelonako zoologikoa.
- 2.- inkesta: Zein da zure telebista programa gustokoena.
- 3.- kontu kontari: Ahokorapiloa
- 4.- gu ere idazle: Nonbait galduta.
- 5.- lumaren kilima: Arrano baten istorioa.
- 6.- denborapasak: Pancakes

## MIRENEN URTEBETETZEA!!!

Gaur Apirilak 5 Gure lagun baten urtebetetzea da, lagun hori Miren Solabarrieta da. 12 urte bete ditu.



**BUENO MIREN ESPERO  
DUGU ONDO  
PASATZEA!!!**



## INKESTA

### ZEIN DA ZURE TELEBISTA PROGRAMA GUSTUKOENA?



**Nora Lizaso:**  
Humor amarillo



**Mikel Iglesias:**  
Sick y luther



**Blanca Garate:**  
Los protegidos  
eta El barco



**Aitor Gomez:**  
Los simpsons



**Ane Perez:**  
Los protegidos



**Ainhoa Rodriguez:**  
Buena suerte  
charlie!



**Amaior Biurrun:**  
Aida



**Clara Ostolaza:**  
Los simpsons



**Miren Solabarrieta:**  
La que se avecina



**Natali Vega:**  
Los simpsons

**Inkestaren emaitza: Los simpsons da programarik gustukoena!!**

## AHOKORAPILOA

**Tiriki,tauki,tauki**

**mailuaren hotsa**

**tiriki.tauki,tauki**

**mailuaren hotsa**

**Ederki dantzatzen da**

**gure mutil motza**

**gure mutil hotza**

**ederki dantzatzen da**

**Gure mutil  
motza**



*egilea: Julen Gonzalez*

G  
U  
G

E

R

E

I

D

A

Z

L

E



**ABE hitza aurkitu  
Portadakoak ez du balio**

*Nonbait galduta.*

**Deskribatuko dizuedan lekua ume guztioi gustatzen zaigu.**

**Janari asko dago eta gehiena goxoa. Baita ere puxikak eta edariak daude. Kutxa asko daude, bakoitzean janari desberdinak daude.**

**Usain gozo-gozoa dauka azukrearen antzerakoa.**

**Ume asko entzuten ditut bere amari janaria erosteko eskatzen.**

**Donostian asko daude eta bakoitzak izen ezberdin bat dauka.**

**Hemen festetarako gauzak daude : Pinatak , dekoratuak eta jostailuak.**

**Niri asko gustatzen zait leku hau eta uste dut zuei ere gustatzen zaizuela.**

**Espero dut asmatzea, oso erraza delako.**



# Lumaren kilima

## 3 . z i k l o k o l a n a k

### Arrano baten istorioa

Gau hotz eta ilun batean, zeruan izar bat ere agertzen ez den gau batean, arrano baten begia ikusten zen. Begia disdiratsun zeukan. Alde batetik bestera zebilen bere harrapakariaren zain. Ondo behatzen balinbazenuen bere mokoa ikusi ahalko zenukeen. Mokoa laban bat baino zorrotzagoa zeukan bere harrapakaria mokokada batekin bertan behera hilda uzteko. ileazala marroila eta beltza zeukan, ia ez zitzaion nabarmentzen gaueko iluntasunean.

Zelai zabalean hegan zebilen bere harrapakina itxaroten. Zelain amaigabea zen, ez zen bukaera ikusten, basamortua. Moihizbeinka sagu ausart bat ateratzen zen, baina arranoak saguak pauso bat ematerako suziri baten abiaduran zuzentzen zen saguaren gana.

Saguek ezin zuten jasan nola beraien ezkutalekutik atera egon ezinean egoten. Ohial bat atera zuten, elurra bezain txuriagoa zen. Hasieran arranoak ez zuen ulertu baina gero konturatu zen Saguek dena azaldu zioten eta arranoa errudun sentitzen zen. Saguek lortu zuten arranoaren bihotz samurrera iristen ondorioz hunkitu zuten. Arranoak bere familiari zer gertatu zitailon azaldu zien.



Aspaldian, lur lasai hegan pasatzen ari ginela trumoa eta haize boladak sartu ziren. Haizeak nire gurasoak eraman zituen eta horrez geroztik ez ditut ikusi. Arranoak eta saguak hizketan ari zirela bi itzal beltz agertu ziren hegan. Lurrean lurreratu ondoren konturatu zen arranoa: Bere gurasoak ziren! Arranoa eta bere gurasoak hegan aldentu ziren eta saguak bakean geratu ziren. Saguak oso pozik zeuden, lortu zuten nahi zutena.



Handik aurrera saguak pakean bizi izan ziren, eta arranoa ere noski!

**Egilea: Amaia Apalategi**

**ABE hitza aurkitu  
Portadakoak ez du balio**



## Pancakes

### Ingredients:

- 500g flour
- 300 mililitre milk
- 1/2 teaspoon salt
- 3 eggs
- maple syrup



**1-First , mix the flour, eggs, milk and salt.Heat some butter in a frying pan.**

**2-Then , put some of the mixture in to frying pan with a small ladle.**

**3-After, turn the pancake when you see a small bubbles.**

**4-Finally , serve with butter and maple syrup**

Abe

